



Donostia

Lorenzo Gorrotxategi

DONOSTIAKO INAUTERIETAKO MOMO JAINKOA

«Pena guztiak ahaztu behar dira»

■ ■ ■ Lorenzo Gorrotxategi da aurtengo Momo jainkoa. 65 urte ditu Lorenzok, eta 20 urte baino gehiago daramatza Gaztetxo konpartsarekin Inauterietan parte hartzen. ■ ■ ■ Oso gustuko ditu Lorenzok Inauteriak; horregatik, oso pozik dago Inauterietarako eman dioten errege botere eta ahalmenekin.

■ **Zure ustez, zergatik aukeratu zaituzte Momo jainkoa izateko?**

Merezi nuela uste dut. Inauterien antolaketa aitzindaria naiz. 48 urte daramatzat Gaztetxo akademian euskal dantzak irakasten, eta Donostiako Inauteriak lehendabizikoz antolatu zirenean, ni hortxe nintzen.

■ **Zer iruditzen zaizkizu Donostiako Inauteriak?**

Duela urte batzuk askoz ere hobeak ziren. Hasiera batean, Inauteriak ospatu gabe denbora dexente egon ginenez, jendeak gehiago parte hartzen zuen. Azken boladan, berriz, jendea hotzago sumatzen dut. Gainera, parte hartzeari dagokionez, beheranzko joera nagusitu da.

■ **Alde horretatik, zer esango zenieke donostiarrei?**

Goibeltasuna alde batera utz dezatela. Inauterietan pena guztiak ahaztu eta jai giroaz gozatu behar da. Horretarako, parte hartzea da onena. Inauteriak ondo pasatzeko, barre egiteko eta penak ahazteko dira.



GARI GARAIALDE

Lorenzo Gorrotxategi oso pozik hartu du Momo errege izendapena, urte askotan lan isila egin ondoren.

■ **Zer azpimarratuko zenuke Donostiako Inauterietan? Zer duzu gogokoen?**

Oso gustuko dut gazte giroa. Gazte jendeak Inauterietan parte hartuz arazoak ahazten ditu, eta oso garrantzitsua iruditzen zait gazte jendeak jaietan parte hartzea.

■ **Aurten KTEk Kuba izendatu du Inauterietako gai nagusi moduan. Zer iruditzen zaizu gaia?**

Gaia primerakoa iruditzen zait. Gainera, Kubako musika oso egokia da Inauterietarako, oso martxosoa delako, badakizu, *salsa*, *merengue*-a eta horiek guztiak. Beraz,

oso egokia dela iruditzen zait.

■ **Kubatarrentzat, baina, ez ote da izango barregarria jendea kubatarrez mozerrotzea? Zer irudituko litzaizuke, esaterako, Alemanian Inauterietan euskaldun ez mozerrotuko balira?**

Ez dut uste inorentzat gaia barregarria izango denik. Alemanian jendea euskaldun ez mozerrotuko balitz, niri oso ondo irudituko litzaizuke. Inauterietan dena umore onez hartu behar da.

■ **Leporaino betea izango duzu egitaraua datozen egunotan...**

Oraindik ez dakit ziur zeintzuk izango diren nire egitekoak. Hala ere, badakit patxada hartzeko denbora gutxi izango dudala, hori seguru.

■ **65 urterekin ez al zaizu astunegia egingo egitaraua?**

Ez dut uste; izan ere, 65 urte eduki arren, oraindik gazte sentitzen naiz.

■ **Konpartsakide askori xumeegia iruditzen zaie jasotzen duten diru laguntza. Zein iritzi duzu horri buruz?**

Egia da KTEk emandako diru laguntza urri samarra dela. Konpartsakide bakoitzak 20.000 pezeta inguru [800 libera] gastatzen ditu Inauterietako jantzetan. Gero orgak, gutxi gorabehera 250.000 pezeta balio du. KTEk emandako diru laguntzak motz geratzen dira.

Ainhoa Irazu
DONOSTIA

Ondo pasa
Alde Zaharreko
giroan!!


ZUHAITZ

Taberna

Narrika, 9.
DONOSTIA (Alde-Zaharra)

GAZTEDI
TABERNA

Ikatz kalea, 9
Tf.: 943 42 01 12
DONOSTIA



Jatetxea - taberna

Fermin Kalbeton, 3
Tf.: 943 42 98 75
DONOSTIA

ESPEZIALITATEAK:
OGITARTEKOAK, BANDERILA
BERO eta HOTZAK



Enbeltran kalea, 6 - Tf.: 943 42 74 05
DONOSTIA

GANBARA

Taberna
Erreategia

San Jeronimo, 21
Tf.: 943 42 25 75
DONOSTIA

15

TABERNA
Konstituzio plaza



mini-golf
txiloka

ZUKU ETA
IRABIATU
NATURALAK
KAFE BEREZIAK

ONDO PASA INAUTERIETAN !!
Narrika, 22 - Alde Zaharra-DONOSTIA